



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Geografia

USE 2024

www.ehu.eus



GEOGRAFIA

GEOGRAFÍA

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

- Proba idatzi honetan **3 ariketa egin** behar dituzu.
- Ariketak hiru multzotan banatuta daude:
A multzoa (4 puntu): A1 eta A2 aukeren artean, hautatu bat. Mapak, grafikoak edo irudiak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea hartuko dira kontuan.
B multzoa (4 puntu): B1 eta B2 aukeren artean, hautatu bat. Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.
C multzoa (2 puntu): Proposatutako 8 kontzeptuetatik 4 definitu (bakoitzak 0,5 puntu balio du). Kontzeptu geografiko bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke.

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, behar den kopurura iritsi arte.

Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea




GEOGRAFIA

GEOGRAFÍA

A MULTZOA: Ariketa praktikoa (4 puntu)

A1 eta A2 aukeren artean, hautatu bat

A1.- Espainiako mapa politikoa. Hiri autonomoak eta probintziak bakoitza bere autonomia-erkidegoan kokatzea. (4 puntu)



Iturria: IGN

Jarri erkidego eta hiri autonomo bakoitzari dagozkion probintzia-zenbakiak jarri:


ANDALUZIA		KANARIAK	
ARAGOI		KANTABRIA	
ASTURIAS		KATALUNIA	
BALEAR UHARTEAK		MADRILGO ERKIDEGOA	
ERRIOXA		MURTZIAKO ERREGIOA	
EUSKAL A. ERKIDEGOA		NAFARROA	
EXTREMADURA		VALENTZIAKO ERKIDEGOA	
GALIZIA		CEUTA	
GAZTELA ETA LEÓN		MELILLA	
GAZTELA-MANTXA			



GEOGRAFIA

GEOGRAFÍA

A2.- Egin klimogramaren iruzkina eta adierazi zer landaredi dagokion klima horri. (4 puntu).



Iturria: AEMET

B MULTZOA: Gaia garatzea (4 puntu)

B1 eta B2 aukeren artean, hautatu bat

B1.- Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektore nagusiak. (4 puntu)

B2.- Hiri-egitura: alde zaharra, zabalgunea eta periferia. (4 puntu)



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2024ko EZOHIOA

GEOGRAFIA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

GEOGRAFÍA

C MULTZOA: Definizioak (2 puntu)

Proposatutako 8 kontzeptuetatik **4 definitu** (bakoitzak 0,5 puntu balio du).
Kontzeptu geografiko bakoitza definitzeko 5 lerro erabili ahal izango dituzu
gehienez:

- Erabilitako Nekazaritza Azalera ENA (0,5 puntu)
- Arro sedimentarioa (0,5 puntu)
- Europar Batasuna (0,5 puntu)
- Abeltzaintza intentsiboa (0,5 puntu)
- Migrazio-saldoa (0,5 puntu)
- Bizi-itzaropena (0,5 puntu)
- Hiri-antolamenduko plan orokorra (0,5 puntu)
- Tertziarizazioa (0,5 puntu)



GEOGRAFIA / GEOGRAFÍA

EZOHIKO DEIALDIA / CONVOCATORIA EXTRAORDINARIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

Irizpide orokorrak

Bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak hierarkizatzeko gaitasuna
- erantzunen egituratze ordenatua
- mapa/lauki/taula edo grafikoan iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- ezagupen-maila

Irizpide espezifikoak

A MULTZOA: Ariketa praktikoa (4 puntu)

A1 eta A2 aukeren artean, **hautatu bat**

A1.- Espainiako mapa politikoa. Hiri autonomoak eta probintziak beren autonomia-erkidegoan kokatzea. (4 puntu)

Jarri erkidego eta hiri autonomo bakoitzari dagozkion probintzia-zenbakiak:

ANDALUZIA	39/40/41/42/43/44/45/46	KANARIAK	48/49
ARAGOI	11/12/13	KANTABRIA	6
ASTURIAS	5	KATALUNIA	14/15/16/17
BALEAR UHARTEAK	52	MADRILGO ERKIDEGOA	27
ERRIOXA	47	MURTZIAKO ERREGIOA	21
EUSKAL A.E.	7/8/9	NAFARROA	10
EXTREMADURA	37/38	VALENTZIAKO ERKIDEGOA	18/19/20
GALIZIA	1/2/3/4	CEUTA	50
GAZTELA ETA LEÓN	28/29/30/31/32/33/34/35/36	MELILLA	51
GAZTELA-MANTXA	22/23/24/25/26		



A2.- Egin klimogramaren iruzkina eta adierazi zer landaredi dagokion klima horri. (4 puntu).

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

- ✓ Tenperatura- eta prezipitazio-erregimenen urtaroko deskribapena, lehorraldiak eta eurialdiak, hotzaldiak eta beroaldiak eta urtarotik urtarora dauden aldeak nabarmenduz. Aipatutako ezaugarrietatik, estazio meteorologiko honen klima zehaztu eta ondorioztatzea. Dagokion landaretza potentziala adieraztea.
- ✓ Azalpena: prezipitazio urriak (390,9 mm), batez besteko tenperatura 17 °C baino txikiagoa (14,8 °C), negua hotza (6 °C eta 10 °C bitartean), lau hilabete lehor (prezipitazioa bi bider tenperatura baino txikiagoa). Estepako klima mediterraneo (hotza), Ebro haranaren erdialdeari dagokiona. Landaredian sastrakadia nagusitzen da. Berezko landaredia ezkai, erromero eta espartuz osatutako sastrakadi baxuak dira, eta badira, halaber, Alepo pinuz egindako basoberritze batzuk.

B MULTZOA: Gaia garatzea (4 puntu)

B1.- Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektore nagusiak. (4 puntu)

Alderdien tratamendua balioetsiko da:

- ✓ Industrian, hiru sektore nagusi daude: metalurgia eta produktu metalikoen ekoizpena; erauzte-industria eta petrolioaren, energiaren eta uraren industriak; eta makineria eta ekipo mekanikoa.
- ✓ Enpresa txiki eta ertain ugarik osatzen duten euskarri-sare eta sare osagarri bat ere badago, eta hainbat jardueratan aritzen dira gaur egun enpresa horiek: aeronautika, telekomunikazioak, bioteknologia...
- ✓ Jarduera helduak, lehiakortasunaren oinarri moduan prezio txikia dutenak eta herrialde merkeagoen lehia dutenak; eta ekipo-ondasunetan oinarritzen direnak, maila teknologiko eta eskari ertainekoak.
- ✓ Industria-politikaren bidez ekoizpena dibertsifikatu nahi da, sektore tradizionalak berrituz, lidergo-egoeran jartzeko, eta sektore berritzaileetan eta etorkizuneko sektoreetan enpresa berrien sorrera bultzatuz. Nazioartekotzea, espezializazio teknologikoa, energia-efizientzia, kalitatea eta prestakuntzaren aldeko apustua egin da.



B2.- Hiri-egitura: alde zaharra, zabalgunea eta periferia. (4 puntu)

Hiri-eremu bakoitzaren morfologia eta funtzioak bereiztea baliotsiko da, bere ezaugarri, bilakaera eta problematikarekin:

- ✓ Alde zaharra
 - herentzia historikoa
 - plano-aniztasuna
 - Errenazimentuaren, Barrokoaren, Ilustrazioaren eta industrializazioaren garaiko aldaketak.
 - saturazio, narriadura, segregazio eta gizarte-arazoak etab.
 - birgaitze-politikak.
- ✓ Zabalgunea
 - zabalgune burgesa: lauki-formako plana, eraikuntza-morfologia, bizitegi-funtzio burgesa.
 - hiriko funtzio nagusien egoitza
 - bizitegi-funtzioaren beherakada
- ✓ Periferia
 - bizitegi-auzoak: tipologiak eta gizarte-segregazioa
 - dentsitate txikiko bizitegi-eremuak (familia bakarrekoak, atxikiak)
 - periferiako industria-guneak: industrialdeak; industria-gune berriak
 - merkataritza-, ekipamendu- eta azpiegitura-eremuak

C MULTZOA: Definizioak (2 puntu)

Proposatutako 8 kontzeptuetatik **4 definitu** (bakoitzak 0,5 puntu balio du).

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Erabilitako Nekazaritza Azalera ENA: landutako lurren eta larreetarako lurren azalera da. Ez ditu beste lur batzuk hartzen, hala nola etzeak, sastrakadiak eta baso-azalera.

Arro sedimentarioa: lurrazalaren eremu deprimitua, gehienetan jatorri tektonikokoa (lurrazalaren sektore bat hautsi eta hondoratu delako); hartan,



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

sedimentuak metatzen dira, eta zenbait erliebe-forma ditu (paramoak, muinoak, etab.).

Europar Batasuna (EB): Europako Ekonomia Erkidegoaren oinordekoa den komunitate ekonomiko eta politikoa, 1993an ezarria. Europako 27 estatuz osatuta dago. Haren organo erabakitzaile nagusiak Parlamentua, EBko Kontseilua eta Europako Batzordea dira.

Abeltzaintza intentsiboa: ahalik eta denbora gutxienean abelburu gehien ekoiztea ziurtatzen duen sistema; inbertsioak eskatzen ditu abeltegietan, teknologian, eskulanean eta elikaduran. Abeltzaintza ukuiuetan eta pentsuz elikatua.

Migrazio-saldoa: leku jakin bateko immigrazioaren eta emigrazioaren arteko balantzea.

Bizi-itzaropena: belaunaldi baten jaiotza-urteko hilkortasun-baldintzak aldaketarik gabe mantenduz gero belaunaldi hori batez beste biziko den urte kopuruaren zenbatespena.

Hiri-antolamenduko plan orokorra: udalerriaren hirigintza-antolamendu integralerako oinarritzko tresna. Hiri-garapena zenbait urtetarako proiektatzen du: inguru bakoitzeko lurzoruaren erabilerak, lurzoruaren sailkapena (hirikoa, urbanizagarria eta urbanizaezina), eraikuntza-dentsitatea, bide-sarea, ekipamendua eta ingurumena babesteko neurriak.

Tertziarizazioa: jarduera ekonomikoaren barnean zerbitzu-sektore edo hirugarren sektorearen hazkunde nabarmena dakarren eraldaketa ekonomiko eta soziala; hirugarren sektorea, hala, lanpostu gehien sortzen dituen eta BPGari (barne-produktu gordinari) gehien ematen dion sektorea izatera pasatzen da.